

# ESKOLAKO BARNE ARAUDIA: ARAUAK ETA NEURRIAK



ARAUAK		NEURRIAK
<b>ESKOL ARA ETORT ZEA</b>	1. Klasera etortzea derrigorrezkoa da matrikulatuta dauden ikasle guztientzat, ikasle eta familien ardura izanik. Ez etorrerak telefonoz edo idatziz justifikatu behar zaizkio tutoreari.	1. Gurasoek horretarako prestatua dagoen eredia bete beharko dute. Hala ez denean hutsegitea ez justifikatuztat joko da eta eskolako dokumentazioan horrela jasoko da (Educa, ikuskaritza...). EREDUA GEHITU
	2. Irakasleek, bere ordutegia eta lan eginbeharrak betez ikasleriaren ardura hartuko dute.	2. Irakasleek idatziz justifikatu beharko dituzte hutsegiteak eta aldeztu aurretik huts egingo dutela jakinez gero, lanak prest utziko dituzte zaintzako irakasleentzat. Honen kontrola zuzendariaren esku geldituko da.
	3. Ez etortze eta beraien justifikazioen kontrola tutoreak egingen du.	3. Ez etortzeak Educan erregistratuko dira. Tutorea gurasoekin kontaktuan jarriko da justifikatu gabeko hutsegiteak asko direnean. Arazoa konpontzen ez bada, orientazio departamentura bideratuko da.



		konpromezua eskatuko zaie.
--	--	----------------------------




ARAUAK	NEURRIAK
--------	----------


<p><b>ORDUA BAINO LEHEN ZENBAI T LE KUTAN EGOTE A</b></p> <p><b>PUNT UALT ASUN A</b></p>	<p>1. Ikasleak ezin dute klase ordua baino lehenago eskolan sartu.</p>	<p>1.Eskolara sartzeko ordua denean, 9tan, kanpaia joko da eta orduan hasiko dira haurrak geletara igotzen.</p> <p>2.Orduategiz kanpo eskolan sartzen diren ikasleak eskolako edozein langilek kaleratuko ditu.</p>
--	--	---

<p><b>ESKOLA KOMUNITATEAREN INSTALAZIO ETA MATERIALAREN ZAINKETA TA ESKOLA ORDUTAN</b></p>	<p>1. Eskolako instalazioak eta materialak bertan bizikide den edozeinen erabilpenerako dira. Beraz, zainketa eta mantenu arduratsua Eskola Komunitatearen kide guztien betebeharra da.</p> <p>2. Eskola Komunitatearen kide guztiak Eskola garbia eta ordenatua mantenduko dute.</p> <p>3. Doakotasun programan parte hartzen duten ikasleek ikasturte hasieran honen inguruan emandako jarraibideak beteko dituzte.</p>	<p>1. Erabilera txarragatik hondatutakoak konpondu, berrezarri edota ordaindu beharko ditu egileak.</p> <p>2. Irakasleak gela behar bezain txukun eta garbi ez dagoela deritzonean ikasleak garbitzen geldituko dira ordutegiz kanpo bada ere.</p> <p>3. Doakotasuneko libururen bat egoera txarrean duenak berria erosi beharko du.</p>
--	---	--

<p><b>ARAUAK</b></p>	<p><b>NEURRIAK</b></p>	
	<p>Eskolaren jarduerekin zerikusia duten joan-etorrietan ikasleek jarrera egokia</p>	

<p><b>PORTA ERA GARRA IOAN</b></p>  <p><b>PORTAE RA GARRA IOAN</b></p>	<p>edukiko dute, garraioaren funtzionamendua eta erabiltzaileen ongizatea bermatzeko.</p> <p>Honetarako bete beharrekoak hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ez eragotzi ibilgailuaren gidaritza.</li> <li>2. Ikasle, laguntzaile eta gidariaren arteko harremanak elkarrekiko errespetuan oinarrituko dira.</li> <li>3. Geltokietan tenorez ailegatuko gara.</li> <li>4. Bidaian eserita egon eta dagonean segurtasun-uhala lotu. .</li> <li>5. Ibilgailuetan ez bota ez paperik ez bertze hondakinik.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Norbaitek gidariari traba egiten badio irakaslearen ondoan eserita egin beharko du bidaia.</li> <li>2. Errespetu faltak gelako araudiari dagozkion neurrien arabera tratatuko dira.</li> <li>3. Garaiz iristen ez denak, irteera galduko du eta gurasoen ardurapean geldituko da. Hutsegite hori idatziz justifikatu beharko da beste hutsegiteak bezala.</li> <li>4. Behar bezala eserita eta uhala jantzita ez daukanak irakaslearen ondoan eserita egin beharko du bidaia.</li> <li>5. Autobusa zikintzen duenak aurkitu bezain garbi utzi beharko du, ordutegiz kanpo bada ere.</li> </ol>
---	--	--


<b>ARAUAK</b>	<b>NEURRIAK</b>
---------------	-----------------

<p><b>JARDUE</b></p>  <p><b>OSAGA RRIAK ETA ESKOL AZ KANPO KOAK</b></p>	<p>1. Eskolaz kanpoko jardueretan ez da bertako materiala (papera, margoak, ordenagailuak, fotokopiagailua...) erabiliko eta irakasle edo monitorearen ardura da eskolako arauak betaraztea.</p> <p>Eskolako koltxonetak edo mahaiak erabili behar izanez gero, monitoreak konpromisoa hartuko du erabilpen egokia egingen duela, baita behar bezala bilduko duela ere</p> <p>2. Legeak agintzen duen moduan eskolako instalazioak udala eta eskolaren baimenaz bakarrik erabiliko dira.</p>	<p>1. Eskolaz kanpoko jardueretarako beharrezko material guztia jardueraren arduradunak edota erabiltzaileek ekarri beharko dute.</p> <p>Eskolako material horiek behin eta berriro ordenatu gabe utziz gero edota egoera kaskarrean, konpondu beharko du eta ez zaio berriro ere erabiltzen utziko.</p> <p>2. Eskolako instalazioa erabili ahal izateko eskabideak idatziz egin beharko zaizkio udalari eta honek eskolari jakinaraziko dio.</p> <p>3. Eskolako instalazioak erabiltzen dituenak aurkitu dituen moduan utzi beharko ditu.</p>
--	--	--

	<b>ARAUAK</b>	<b>NEURRIAK</b>
	<p>1. Gelan eseri irakasleak agindu bezala. Irakasle bakoitzak egokia ikusiz gero bere saioetan aldaketak egin ditzake.</p>	<p>1. Hau betetzen ez duenari irakasleak araua gogoraraziko dio behin eta jokabide berarekin</p>

<p><b>GELAK</b></p> <p><b>O</b></p> <p><b>JARRER</b></p> <p><b>A</b></p>	<p>2. Irakasle nahiz ikaskideen azalpenetan isilik egon, modu egokian jarri eta arretaz jarraitu.</p> <p>3. Irakasleak proposatutako lana egin, bere jarraibideak kontutan hartuz.</p>	<p>jarraitzen badu, irakasleak esandakoa bete beharko du.</p> <p>2. Behar izanez gero, gelan jokabide hauek neurtzeko txantilo bat jarriko da eta ikasle bakoitzaren eguneroko jokabidea bertan erregistratuko da. Ziklo bakoitzeko irakasleek txantiloia beharren arabera zehaztuko dute. Txantiloia eta dagozkion neurriak ziklo bakoitzeko gurasoei jakinaraziko dizkiete tutoreek.</p> <p><b>TXANTILOIA</b> (semaforoak, agenda, email a, aurpegiak edota irakasleari portaeren erregistroa eramateko lagungarri izango zaion edozein estrategia.)</p> <p>3. Irakasleak agindutako lana nahita gaizki egiten jarraitzen duenak edo egiten ez duenak, klase orduetatik kanpo bukatu beharko du eta irakasleak lan gehiago ere bidali ahal izango dio. Jarrera desegoki hau erregistratu egingen da.</p>
--	--	--

<p><b>GELAK</b></p>	<p>4. Pertsona guztiak errespetatzea. Eragozpenak ez sortzea, ez barregarri utzi, ez iraintzea, ez probokatzea, borrokatzea, ezta bertzeen gauzak bereganatzea ere.</p>	<p>4. "BAKE KONPROMEZUA" bete eta sinatuko du" Halere behin eta berriro errespeturik gabeko jarreran jarraitzen badu,</p>
---------------------	---	---

<p><b>O</b> <b>JARRERA</b> <b>A</b></p> 	<p>5. Gela garbia mantendu eta modu egokian utzi (argiak, leihoak..).</p> <p>6. Gelako material, altzariak eta instalazioak behar bezala erabili. Ez pintatu eta ez marratu altzariak eta instalazioak.</p> <p>7. Ikasleak gelan lan egiteko beharrezkoa duen material guztia ekarriko du. Materiala ekartzearen azken ardura gurasoena izanen da.</p> <p>8. Komunak: Ahal den heinean klaseen aurretik edo ondotik erabiliko dira; txandaka eta modu egokian.</p>	<p>zuzenean ondoriorik larriena aplikatzerik izanen da. BIZIKIDETZARI DAGOKION PROTOKOLOA ezarriko da.</p> <p>Jarrera edukien denez, eragina izanen du ikasleen notetan, irakasle bakoitzak bere programazioan zehazten duen moduan.</p> <p>5. Zikintzen duenak garbitu egin beharko du. Astero, edo beharrezkoa bada egunero, gela bakoitzeko txukuntasunaren kontrola eramateko arduradunak egongo dira.</p> <p>6. Erabilera desegokiagatik gelako materialak edo instalazioak hondatzen dituenak konpondu, berria ekarri edo ordaindu egin beharko ditu.</p> <p>7. Lehenengo aldian materiala ez ekartzeagatik abisua jasoko du, bigarrenean erregistratua geldituko da eta gelan egin ez dutena etxean egin beharko dute hurrengo egunerako. Gainera, notetan ere eragina izan dezake.</p> <p>8. Komunak: Modu egokian erabiltzen ez duenak garbitu egin beharko du.</p>
<b>ARAUAK</b>		<b>NEURRIAK</b>
	<p>1. Langileak errespetuz tratatuko ditugu, hasieran eta bukaeran agurtuz. Behar duguna oihukatu gabe eskatuko diegu eta gure txanda ailegatu arte lasai itxarongo dugu.</p>	<p>1. Langileak ez errespetatzekotan hurrekin hitz egingen da eta bi aldiz jarraian</p>



**JANTO  
KIARI  
DAGOZ  
KIONA  
K**

2. Eskuak garbitu ondoren, jantokian lasai sartuko gara.

3. Janaria, ura eta mahai tresnak ongi erabiliko ditugu

4. Behar duguna errespetuz eskatuko dugu, eskua altxatuta, gure txanda lasai itxaronez eta behin bakarrik eskatuta.

5. Bazkaldu ondoren biltzen lagunduko dugu gure txanda denean.

6. Bazkaldu ondoren ez gara geletan sartuko.

7. Jantokian gelditzen ez diren ikasleak eguerdian ezin dira jantokiko eremuan sartu.

gertatuz gero, ez zaie kasurik egingo behar bezala tratatu arte.

2. Sartu aurretik haurrei harrera eginen zaie, behin lasaitu direnean eta arauak oroitarazita, taldeka sartuko dira jantokian.

3. Janaria botatzen badute bildu eta garbitu egin beharko dute zikindutakoa Tresnak behar bezala erabiltzen ez badituzte, une batez kenduko zaizkie, beranduago bukatuko dute jatez eta bere mahaia garbitzen gelditu beharko dute.

4. Oroitaraziko zaie gauzak nola eskatzen diren eta hala egin arte ez zaio eskatzen duena emanen. Ohiuka aritzen denak bakarrik bazkalduko du beste toki batean.

5. Bildu arte ez da atsedendira joanen.

6. Jantokiak irauten duen denboran gelak itxiak edukiko ditugu ez ordea komunak.

7. Bertan zaintzaileek dituzten arauak errespetatu eta bete beharko dituzte baina betiere GURASOEN ARDURA OSOA izanen da, EZ ZAINZAILERENA.

## **PATIOKO ARAUAK**

- Atsedendietako sarrera irteeretan modu egokian (lasterka ibili gabe, aurrekoa bultzatu, oihukatu..) ibili behar dute ikastetxean.



zaindu eta modu egokian erabili.

- Jolastoki barruan egonen gara (baloia edo bertze zerbait kanpora eroriz gero, zaintzaileari eskatu)..
- Plazako iturria ez da erabiliko.
- Ezin da harmailetara igo.
- Zuhaitzak errespetatuko ditugu.
- Leiho eta atez inguratuta dauden tokietan baloia eta pilotarekin poliki ibiliko gara.
- Euria egiten duenean sortzen diren putzuetan ez gara ibiliko.
- Eskolan bertan dugun materiala erabiliko dugu.
- Atsedendietan gelak itxita egonen dira; hau irakaslearen ardura izanen da.
- Haur hezkuntzako atsedendia garaian gurasoak ez dira hurbilduko patio eremura. Egoera honek haurrak asko aztoratzen ditu, eta ondorioak ez dira onak izaten.
- Eguraldi txarra denetan atsedendia ganbaran edo kaperan egingen da eta kasu hauetan ezingo da baloirik erabili. Zalantzako eguraldia den egunetan zaintzako irakasleek erabakiko dute tokia.
- Atsedendia bukaeran patio eremua txukun utziko da; zerbait gertatuz gero zaindariak tutoreari jakinaraziko dio.
- Atsedendietako garaian ikasleak ezingo dute eskola eremutik atera, baldin eta gurasoren bat bila etortzen ez bazaie.
- Atsedendira atera baino lehen ikasleak komunetik pasatuko dira, behin aterata ezingo dira berriz sartu atera ibili, ez bada premiazko egoera bat.
- Zaintzan dauden irakasleei kasu egingo zaie, edozein eskaera edo aholkuren aurrean. Egoera desberdinak beraiekin konponduko ditugu.
- Patioan baloiak erabili daitezke modu lasaien baina futboleak bakarrik Asteazkenetan ibili daitezke. Parte hartu nahi duten haur guztiek dute eskubidea futboleak ibiltzeko egun horretan.

## BESTELAKO ARAU PUNTUALAK

- Gaixorik dagoen ikaslea etxera bidaliko da. Kutsakorra den gaixotasunik izango balute ez dira umeak eskolara etorriko.



tasun ezak, beste ikasleengan eragina badu ( parasitoak) ikaslea etxera bidaliko da. behar diren neurriak hartu arte.

- Gurasoen arteko banaketak daudenean, egoeraren berri emanez idatzi bat aurkeztu beharko dute zuzendaritzan, gero horren arabera joka dezagun: bileren deialdietan, ohar banaketetan, noten banaketan. . Eskolak ez du inolako ziurtagiririk egingen baldin eta auzitegiak berak eskatua ez bada.